# MERKATU SEGMENTAZIOA:



Kastrok txakurrak edota katuak dituzten pertsonentzat zuzenduta dago, gehienbat bidaiatzen duten pertsonentzat eta haien animaliaren ongizatea eta erosotasuna nahi dutenentzat, hala, bidaiatzerakoan, animaliak arazoa izan ezkero gurekin utzi eta ederki egongo dela bermatzen diogu bezeroari. Aldi berean, haien txakurrak hezi nahi duten bezeroentzat zuzenduta dago, heziketa zerbitzua baitaukagu eta denboraldi bat gurekin egon eta gero hobeto heziak bueltatzen dizkiegu. Prezioak altu samarrak izango dira, beraz, gehienbat erdi-goi mailako jendearentzat zuzenduta dago, gure zerbitzu ugari eta kalitatezkoengatik. Gure enpresa Donostian kokatua egongo da, horregatik Donostiako biztanleria izango da gure jomuga.